

SAREGILE, ORIOKO EMAKUMEON* ETXEA 2025-2026 IKASTURTEKO MEMORIA

PERTZETIK ELKARTE FEMINISTA



AURKIBIDEA

1. SARRERA ETA TESTUINGURUA
2. 2025-2026 IKASTURTEAREN ARGAZKI OROKORRA
3. SAREGILE, ORIOKO EMAKUMEON* ETXEA
4. AHALDUNTZE ESKOLAK
5. AHOLKULARITZAK
6. AGENDA
7. ELKARGUNEAK ETA ESPAZIOAREN ERABILERA
8. ONDORIOAK ETA ERRONKAK

1. SARRERA ETA TESTUINGURUA

*Saregile, Orioko Emakumeon Etxea**, herriko emakumeen* ahalduntzea, saretzea eta parte-hartzea sustatzeko sortutako udal ekipamendua da. Ez da hutsetik sortutako ekimena; aitzitik, 2019an martxan jarritako Orioko Emakumeon* Ahalduntze Eskolaren ibilbidean eta herrian urte hauetan garatutako berdintasun-politiketan du jatorria. Herriko emakumeen* behar eta interesetatik abiatuta eraiki da, eta urtez urte garatzen joan den prozesu baten emaitza da.

Azken urteotan, Orion berdintasunaren eta feminismoaren inguruko lanketa esanguratsua egin da, bai herri mailan, bai erakundeetan. Emakumeon* Ahalduntze Eskola, Emakumeon* Mahaia, hezkidetza, indarkeria matxistei aurre egiteko koordinazio-egiturak eta Berdintasun Sailaren sorrera dira bide horren adierazgarri nagusiak. Testuinguru horretan, Saregile herriko erreferentziazko espazio feminista bihurtu da, arreta eta aholkularitza eskainiz, emakumeen* arteko harremanak eta parte-hartzea sustatuz, eta udalaren nahiz herriko eragileen arteko zubilana eginez.

2025-2026 ikasturtean zehar, Saregilek bere jarduna sendotzen jarraitu du, emakumeen* ahalduntze pertsonala eta kolektiboa sustatzeko espazio seguru, ireki eta anitza eskainiz. Garatutako jarduerak, zerbitzuek eta elkarguneek agerian utzi dute herrian halako espazio baten beharra eta Saregileren inguruan ehuntzen den komunitatea urtez urte indartzen ari dela.

1.2. MARKO TEORIKOA

Saregileren jarduna ikuspegi feministatik garatzen da. Feminismoa gizarteko botere-harremanak eta desberdintasun-egiturak aztertu eta eraldatzeko tresna gisa ulertzen dugu; horrenbestez, helburua ez da emakumeen* egoera hobetzea soilik, baizik eta berdintasunean, justizia sozialean eta eskubideen aitortzan oinarritutako komunitatea eraikitzen laguntzea.

Ahalduntzea da proiektuaren oinarrietako bat, eta hau ez da ulertzen prozesu indibidual gisa, baizik eta dimentsio pertsonala, kolektiboa eta politikoa uztartzen dituen bide gisa. Horren bidez, emakumeek* autonomia, erabakitze gaitasuna, autoestimua eta komunitatean subjektu aktibo gisa parte hartzeko ahalmena indartzen dituzte.

Era berean, interseksionalitatea proiektu osoa zeharkatzen duen printzipioa da. Emakumeen* errealitate anitzak aitortzen dira, eta generoa adina, jatorria, hizkuntza, egoera ekonomikoa, sexu-orientazioa, genero-identitatea edo gaitasun-aniztasuna bezalako ardatzekin gurutzatzen dela ulertuz. Horregatik, jarduerak eta zerbitzuak emakumeen* aniztasunera egokitzen dira.

Azkenik, genero-ikuspegia modu zeharkakoan txertatzen da Saregileren jardun osoan, plangintzatik hasi eta kudeaketa, komunikazioa, ebaluazioa eta esku-hartzeraino. Feminismoa, ahalduntzea, interseksionalitatea eta zeharkakotasuna dira, horrenbestez, Saregileren jardunaren oinarriak eta 2025-2026 ikasturtean garatutako lan guztiaren gidalerro nagusiak.

2. 2025-2026 IKASTURTEAREN ARGAZKI OROKORRA

2025-2026 ikasturtean zehar Saregilek askotariko jarduerak, zerbitzuak eta topaguneak eskaini ditu emakumeen* ahalduntzea, ongizatea eta parte-hartzea sustatzeko. Jarraian jasotzen den taulak ikasturteko parte-hartzearen ikuspegi orokorra eskaintzen du. Datu hauek **parte-hartze edo izen-emate kopuruak** adierazten dituzte, eta ez pertsona bakarren kopurua; izan ere, emakume askok ikasturtean zehar zerbitzu edo jarduera batean baino gehiagotan parte hartu dute.

Arloa	Parte-hartze / izen-emate kopurua
Ahalduntze eskolak	138 izen-emate
Aholkularitzak (juridikoa, psikologikoa eta sexu-aholkularitza)	132 hitzordu (65 erabiltzaile)
Elkarguneak	88 parte-hartze
Agenda feministako ekintzak	263 parte-hartze
GUZTIRA	633

3. SAREGILE, ORIOKO EMAKUMEON* ETXEA

3.1. HELBURUAK

Saregile, Orioko Emakumeon* Etxea, emakumeen* ahalduntze pertsonala, kolektiboa eta komunitarioa sustatzeko sortutako espazioa da. Bere jarduna emakumeen* beharrei erantzuteko ikuspegi integral batean oinarritzen da, arreta, formazioa, bidelaguntza, saretzea eta eragin komunitarioa uztartuz.

Helburu orokorra da emakumeen* autonomia eta parte-hartzea indartzea, genero-desberdintasun estrukturalak murrizten laguntzea eta berdintasun erreal eta eraginkorraren aldeko baldintzak sortzea. Horretarako, Saregilek emakumeen* bizitzako hainbat eremutan eragiten duten tresnak eta espazioak eskaintzen ditu, ikuspegi feminista eta interseksional batetik.

Helburu orokor horretatik eratorritako helburu espezifiko nagusiak honako hauek dira:

- Emakumeen **autonomia pertsonala eta emozionala** handitzea, autoestimua, erabakigaitasuna eta bizi-proiektu propioaren eraikuntza indartuz.
- Emakumeen **autonomia juridikoa eta ekonomikoa** sendotzea, eskubideen ezagutza eta baliabideetarako sarbidea erraztuz.
- **Indarkeria matxisten prebentzioa, detekzio goiztiarra eta arreta integrala** hobetzea, indarkeriarik gabeko bizitzak bermatzeko.
- Emakumeen **parte-hartze sozial eta politikoa** handitzea, erreferentzialtasuna eta lidergo feminista sustatuz.
- **Zaintzaren ikuspegi feminista** komunitatean txertatzea, emakumeen gainkarga murrizteko eta eredu sozial eraldatzaileagoak sustatzeko.
- Kolektibo zaurgarrien (emakume migratuak, LGTBIQ+ pertsonak, nerabeak, zaintzaileak, aniztasun funtzionala duten emakumeak) inklusioa eta saretzea bermatzea, desberdintasun anizkoitzei modu espezifikoan erantzunez.

3.2. EGITURA

Helburu horiek garatzeko, Saregileren jarduna hainbat zerbitzu eta lan-ildoren inguruan antolatzen da:

- Harrera, arreta eta bidelaguntza sistema.
- Ahalduntze Eskolak.
- Indarkeria matxistari aurre egiten dioten emakumeei* arreta eta bidelaguntza.
- Aholkularitza zerbitzu espezializatuak.
- Elkarguneak eta talde autonomoak.
- Agenda feminista.
- Herriko eragileekin sare-lana eta koordinazioa.
- Orioko Udalari aholkularitza teknikoa eta lankidetzak.

Ikasturtean zehar, Saregilek ez du soilik jarduera-programazio bat eskaintzen; emakumeen* arteko topagune, babesgune eta erreferentziazko espazio gisa ere jarduten du. Horrela, emakume askorentzat lehen harrera-gunea bihurtzen da, beren beharrei erantzuteko baliabideak aurkitzeko eta beste emakume batzuekin loturak eraikitzeko.

3.3. EMAKUMEON* MAHAIA

Emakumeen Mahaia Saregileri lotutako parte-hartze eta erabaki gunea da. Bertan herriko emakumeek parte hartzen dute norbanako gisa, beren esperientzia, interes eta ikuspegietatik ekarpenak eginez. Ez da elkartearen ordezkari bat espazio bat, baizik eta emakumeen etxearen inguruan inplikaturako emakumeen topagune irekia.

Mahaiak funtzio estrategikoa du Saregileren egituraren, emakumeen etxearen orientazioa, programazioa eta lehentasunak emakumeekin batera definitzen baitira bertan. Erabiltzaileek jardueren eta zerbitzuen inguruko iritzia eman, proposamenak egin eta erabakiak hartzeko prozesuetan parte hartzen dute; horrela, Saregile herriko emakumeen behar eta interesekin lotuta mantentzen da.

2025-2026 ikasturtean, Emakumeen Mahaiak aldizkako bilerak egin ditu Saregileko programazioaren jarraipena egiteko, ikasturteko ekintza nagusiak koordinatzeko, zaintza komunitarioaren eta erreparazio feministaren prozesuak partekatzeko, ahalduntze eskoletarako

proposamenak lantzeko eta hurrengo ikasturtea prestatzen hasteko. Modu horretan, Saregileren gobernantza parte-hartzailearen oinarritzko tresna izan da.

3.4. HARRERA ETA ARRETA SISTEMA

Harrera eta arreta sistema Saregileren oinarrietako bat da. Emakumeon* Etxera hurbiltzen diren emakume guztiei lehen kontaktutik harrera gertukoa, profesionala eta konfidentziala eskaintzea du helburu. Arreta entzute aktiboan, errespetuan eta emakume bakoitzaren erritmoak aitortzean oinarritzen da, haien beharrak identifikatu eta erantzun egokia emateko.

Harrera-sistemaren bidez honako funtzio hauek betetzen dira:

- Saregilera lehen aldiz gerturatzen diren emakumeei informazioa eta orientazioa eskaintzea.
- Programazioaren eta zerbitzuen berri ematea.
- Emakume bakoitzaren beharrei erantzuteko baliabide egokiak identifikatzea.
- Aholkularitza eta bidelaguntza zerbitzuetara bideratzea.
- Herriko eta eskualdeko beste baliabide batzuekin loturak erraztea.
- Indarkeria matxista egoeren aurrean lehen arreta eta orientazioa eskaintzea.

Harrera-sistemak **ikuspegi feminista eta intersekzionala** du; emakume bakoitzaren testuingurua kontuan hartzen da, hala nola adina, jatorria, hizkuntza, egoera administratiboa edo zaintza-erantzukizunak, arreta pertsonalizatua eta integrala eskaintzeko.

Gainera, harrera ez da premiazko egoerei erantzuteko tresna soilik, **ahalduntze-prozesuen atea** ere bada. Lehen kontaktutik abiatuta, emakumeek ahalduntze eskoletan, elkarguneetan, agenda feministako jardueretan eta gainerako zerbitzuetan parte hartzeko aukera dute, Saregileren koordinazio-sareari esker emakume bakoitzaren beharrei modu hurbil, malgu eta integralean erantzunez.

4. AHALDUNTZE ESKOLAK

4.1. AHALDUNTZE ESKOLEN BOST ARDATZAK

Ahalduntze Eskolak, bost ardatzetan egituratuta, proiektuaren tresna nagusia dira emakumeen gaitasun pertsonalak, sozialak eta politikoak modu sistematikoan garatzeko. Ardatz bakoitzak xede jakin bati erantzuten dio:

- **Gorputza eta osasuna** ardatzak ongizate emozionala eta gorputzaren gaineko autonomia indartzen ditu, autoestimua eta erabaki-gaitasuna hobetuz. Adibidez: zoru pelbikoa lantzen, haurdunaldia eta mugimendua, biodantza...
- **Indarkeria matxistak** ardatzak kontzientzia kritikoa eta detekzio goiztiarra lantzen ditu, indarkeriarik gabeko bizitzak lortzeko helburuari zuzenean erantzunez. Adibidez: ahalduntzea eta autoestimua, komunikatzen ikasi berdintasunezko harremanak sortzeko...
- **Autonomiarako baliabideak** ardatzak autonomia juridiko eta ekonomikoa indartzen du, dependentzia-egoerak murrizteko. Adibidez: gure gorputzean eta etxean burujabe, soinu teknikari idastaroa, etxeko konponketak...
- **Zaintza** ardatzak zaintza-lanen ikuspegi feminista txertatzen du, emakumeen gainkarga arintzeko eta eredu komunitarioagoak sustatzeko. Proiektu guztiaren eta espazioaren beraren sustraletako bat da zaintza, beraz, ahalduntze eskola guztietan transbertsalki lantzen den ardatza da.
- **Saretzea eta parte-hartzea** ardatzak isolamendu soziala murrizten du eta sare feminista sendoak sortzen ditu, parte-hartze soziopolitiko handitzeko. Ardatz hau ere Saregileren izaeraren oinarrian dago, ahalduntze eskola guztien helburua baita herriko emakumeen saretzea eta parte-hartzea bultzatzea
- Ardatz horien bidez, helburu guztiak modu integralean lantzen dira, ahalduntze pertsonala eta kolektiboa garatuz.

4.2. 2025-2026 IKASTURTEKO AHALDUNTZE ESKOLAK

ESKAINITZA

Jarduera	Bidelaguna	Datak	Hizk.
Komunikatzen ikasi berdintasunezko harremanak sortzeko	Pepa Bojó Ballester	Urriak 1 – Abenduak 3	GAZT
Haurdunentzako mugimendu saioak	Jesica Morales Farace	Urriak 2 – Abenduak 18	GAZT
Zeramika ikastaroa	Elene Tamayo	Urria-Abendua	EUS
Txalaparta ikastaroa	Nagore Etxabe Etxabe	Azaroak 4 – Abenduak 16	EUS
Irakurle taldea (2025-26 ikasturtea)	Nerea Loiola Pikaza	Hileako azken asteazkenetan	EUS
Zoru pelbikoa lantzen	Saioa Baena Gorosabel	Urtarrila – Martxoa	EUS
Biodantza	Eider Zuriarrain	Urtarrila – Martxoa	EUS
DJ ikastaroa	Ostaizka Esteli Serra Pozo (Siwanaba DJ)	Martxoak 4 – Apirilak 22	EUS
Geure gorputzean eta etxean burujabe	Aiora Urbietta Eizagirre	Apirilak 16 – Maiatzak 21	EUS
Mendi orientazio ikastaroa	Patri Espinar Labián	Maiatzak 8, 9 eta 10	EUS
Batxata Salsa Kuir	Nerea Hernandez Antero	2026ko udaberria	EB
Irrintzi tailerra	Amaia Garcia Uriondo	Otsailak 19	EUS
Surf topaketa	—	Maiatzak 30	EB

PARTE-HARTZAILEEN DATU OROKORRAK

2025-2026 ikasturtean zehar antolatutako ikastaro, tailer eta taldeetan guztira **138 izen-emate** jaso dira. Horietatik, **109 pertsonak** parte hartu ahal izan dute eskainitako jardueretan, eta **29 pertsona** itxaron-zerrendan geratu dira, plaza kopurua gainditu duten jardueretan.

Datu horiek erakusten dute Saregileren eskaintzak interes handia pizten duela herriko emakumeen artean. Jarduera batzuetan eskaria aurreikusitako plazen gainetik egon da, eta horrek hainbat itxaron-zerrenda sortzea ekarri du. Egoera horren adibiderik argiena Txalaparta

ikastaroan eman da; jasotako interes handiari erantzuteko bigarren talde bat sortu zen, emakume gehiagok parte hartzeko aukera izan zezaten.

Eskari handiena izan duten jardueren artean daude *Salsa-Batxata Kuir*, *Mendi Orientazioa*, *Zoru Pelbikoa Lantzen* eta *Zeramika*. Jarduera horietan plazak azkar bete ziren eta itxaron-zerrendak sortu ziren, gorputzaren ezagutza, autonomia, aisialdia eta harreman sozialak uztartzen dituzten proposamenek pizten duten interesa agerian utziz.

Bestalde, jarduera guztiek ez dute eskari bera izan, baina programazio osoak emakumeen behar, interes eta bizi-momentu desberdinei erantzuteko helburua izan du. Horrela, ikasturtean zehar osasuna, zaintza, autonomia, sormena, kultura, gorputza, parte-hartzea eta ahalduntzea landu dira ikuspegi feministatik.

Oro har, jasotako izen-emate kopuruak eta hainbat jardueratan sortutako itxaron-zerrendek erakusten dute Saregile erreferentziazko espazio bilakatu dela herriko emakume askorentzat, eta eskaintzen duen programazioak interesa eta parte-hartzeko gogoia sortzen dituela.

IZEN-EMATEEN PROFILA: ADINA ETA HIZKUNTZA

Adinaren arabera banaketa

2025eko udazkeneko eta 2026ko urtarrila-ekaineko ahalduntze eskoletan jasotako izen-emateak aztertuta (N=138), parte-hartzaileen batez besteko adina 45 urtekoa izan da. Adin-tarterik handiena 30-44 urte bitartekoa izan da, izen-emate guztien %39,1 osatuz.

Adin-tartea	Kopurua	%
18-29 urte	23	16,7%
30-44 urte	54	39,1%
45-59 urte	26	18,8%
60 urte edo gehiago	35	25,4%
Guztira	138	100,0%

Datuen arabera, Saregileren eskaintzak adin askotako emakumeak erakartzen ditu, baina bereziki nabarmena da 30 eta 44 urte arteko emakumeen presentzia. Aldi berean, 60 urtetik gorako

emakumeek ere parte-hartze handia izan dute (%25,4), eta horrek erakusten du programazioak belaunaldi ezberdinetako emakumeen interes eta beharrei erantzuteko gaitasuna duela.

Hizkuntzaren arabera banaketa

Erabiltzaileen hizkuntza 2026ko urtarrila-ekaineko izen-emateetan hasi zen jasotzen; beraz, ondorengo datuak aldi horretako izen-emateei dagozkien soilik (N=101).

Hizkuntza	Kopurua	%
Euskara	93	92,1%
Gaztelania	6	5,9%
Euskara eta gaztelania	1	1,0%
Erregistro akatsa / zehaztu gabe	1	1,0%
Guztira	101	100,0%

Hizkuntzari dagokionez, izen-emate gehienak euskaraz egin dira (%92,1), eta horrek agerian uzten du ahalduzko eskoletako parte hartzaile gehienek hizkuntza euskara dela. Gaztelaniaz aritzen diren erabiltzaileak gutxiengoak dira (%5,9), eta izen-emate bakar batean bi hizkuntzak erabili direla adierazi da. Eraitza horiek bat datoz Orioko testuinguru soziolinguistikoarekin eta Emakumeon Etxearen jardueretan euskarak duen presentzia sendoarekin.

Ohar metodologikoa: adinaren analisia 2025eko udazkeneko eta 2026ko urtarrila-ekaineko izen-emate guztiekin egin da; hizkuntzaren analisia, berriz, aldagaia 2026an jasotzen hasi zenez, 2026ko urtarrila-ekaineko izen-emateetara mugatzen da.

5. AHOLKULARITZAK

5.1. AHOLKULARITZA JURIDIKOA

Saregileko aholkularitza juridikoa Irule Zerbitzu Juridiko eta Psikoosozialak ematen du. Aholkularitza juridikoa emakumeek beren eskubideak ezagutu, ulertu eta baliatzeko laguntza eskaintzen duen zerbitzu espezializatua da. Zerbitzu honen bidez, emakumeek beren egoera pertsonal, familiar, laboral edo sozialarekin lotutako zalantzak argitzeko orientazioa jasotzen dute, betiere ikuspegi feminista eta emakumeen ahalduntzea erdigunean jarritz. Saregilen eskaintzen den aholkularitza juridikoa, informazioa eta orientazioa emateaz gain, emakumeen autonomia indartzea du helburu, erabaki informatuak hartu ahal izan ditzaten eta beren eskubideak baliatzeko beharrezko tresnak eskuratu ditzaten.

2025-2026 ikasturtean zehar aholkularitza juridikoa guztira **49 hitzordu arrunt** egin dira, eta horiez gain **20 orduko poltsa osagarri bat** erabili da kasu jakin batzuei erantzuteko.

ERABILTZAILAK ADINAREN ARABERA

Jasotako kontsulten artean adin-tarte guztietako emakumeak ageri badira ere, erabiltzaile gehienak **31 eta 65 urte arteko emakumeak** izan dira. Bereziki nabarmena da 31-40 urte eta 41-50 urte arteko emakumeen presentzia; bizitzako etapa horietan banaketa, zaintza, seme-alaben zaintza eta etxebizitzarekin lotutako erabakiak maizago agertzen direla ikusten da.

Gazteenen artean (19-30 urte) kontsulta gutxiago jaso dira, baina jasotako eskaerek garrantzia bereziko gaiak jorratzen dituzte, hala nola salaketak edo indarkeria matxistarekin lotutako egoerak.

ERABILTZAILAK HIZKUNTZAREN ARABERA

Aholkularitza juridikoko erabiltzaileen hizkuntza-aukerari dagokionez, arreta jasotako emakumeen %60k euskaraz egin dute zerbitzuaren erabilera, eta %40k gaztelaraz. Datu horiek erakusten dute bi hizkuntzetan arreta eskaintzea ezinbestekoa dela erabiltzaileen beharrei egoki erantzuteko, eta, aldi berean, Saregilek euskarazko arreta espezializatua eskaintzeko duen gaitasuna eta garrantzia agerian uzten dute.

Hizkuntza	Kopurua	%
Euskara	14	56,0%
Gaztelera	11	44,0%
Guztira	25	100,0%

KONTSULTEN GAIEN ANALISIA

Jasotako kontsulten artean gai nagusi batzuk bereiz daitezke:

Indarkeria matxista izan da kontsulta-arlo garrantzitsuenetako bat. Indarkeria matxistarekin zuzenean lotutako kasuak, eraso matxistak eta salaketekin lotutako kontsultak kontuan hartuta, zerbitzuak funtsezko eginkizuna bete du emakumeek informazio juridikoa eskuratzeko eta babes-baliabideak aktibatzeke orduan. Gainera, indarkeria matxistarekin lotutako hainbat erabiltzailek hitzordu bat baino gehiago behar izan dituzte, egoera horien konplexutasuna eta jarraipenaren beharra agerian utziz.

Familia-zuzenbidearekin lotutako gaiak ere oso ugariak izan dira. Banaketak, zaintza eta seme-alaben kustodia bezalako kontsultek pisu handia izan dute. Horrek erakusten du emakume askok beren bizitza pertsonalean eta familiarrean eragin zuzena duten erabakien aurrean orientazio juridikoa behar dutela.

Lan-arazoak beste kontsulta-multzo garrantzitsu bat osatu dute. Lan-baldintzekin, eskubide laborekin edo lan-gatazkekin lotutako zalantzek emakume askoren kezka nagusietako bat izaten jarraitzen dutela erakusten dute.

Horiez gain, **etxebizitzarekin lotutako gaiak**, **azken borondateak**, **istripuak** edo bestelako egoera juridiko espezifikoak ere landu dira, aholkularitzaren izaera anitza eta emakumeen behar askotarikoei erantzuteko duen gaitasuna erakutsiz.

LEHEN ONDORIOAK

Jasotako datuek erakusten dute aholkularitza juridikoa Saregileren barruan erreferentziazko baliabidea dela emakume askorentzat. Kontsulten aniztasunak agerian uzten du emakumeek hainbat bizi-esparrutan aurkitzen dituzten erronkei erantzuteko tresna erabilgarria dela, eta

bereziki garrantzitsua dela indarkeria matxistarekin, familia-harremanekin eta lan-eskubideekin lotutako egoeretan.

Era berean, hainbat erabiltzailek hitzordu bat baino gehiago behar izanak erakusten du zenbait kasutan orientazio puntual bat baino gehiago behar dela, eta bidelaguntza juridikoak jarraipena eta konfiantzazko harremana eskatzen dituela emakumeen autonomia eta eskubideen defentsa indartzeko.

5.2. BIDELAGUNTZA PSIKOLOGIKOA

Bidelaguntza psikologikoa emakumeen ongizate emozionala, osasun mentala eta ahalduntze pertsonala sustatzeko eskaintzen den zerbitzu espezializatua da. Zerbitzu honen helburua da emakumeei beren bizitzako une zailetan entzute, orientazio eta laguntza profesionala eskaintzea, betiere ikuspegi feminista batetik eta emakume bakoitzaren erritmoak eta erabakiak errespetatuz. Banaketa-prozesuak, doluak, antsietatea, bakardadea, harreman gatazkatsuak, indarkeria matxistaren ondorioak edo bestelako ondoez emozionalak lantzeko espazioa eskaintzen du, emakumeen autonomia eta ongizatea indartzeko helburuarekin.

2025-2026 ikasturtean zehar, zerbitzua **Leire B. Murguialday** eta **Sheila Melcon** psikologoek eskaini dute. Guztira **70 hitzordu** egin dira zerbitzuaren ohiko ordutegiaren barruan, eta horiez gain **10 orduko poltsa osagarria** erabili da eskariari erantzuteko.

ERABILTZAILEAK ADINAREN ARABERA

Ikasturtean zehar guztira **29 emakumek** erabili dute bidelaguntza psikologikoko zerbitzua. Adin-tarte guztietako emakumeak artatu badira ere, erabiltzaile gehienak **31 eta 50 urte bitarteko emakumeak** izan dira, erabiltzaile guztien erdia baino gehiago osatuz.

Bestalde, 19-30 urte bitarteko emakume gazteek ere presentzia esanguratsua izan dute, eta 51 urtetik gorako emakumeek ere zerbitzua erabili dute hainbat egoera pertsonal eta emozionali aurre egiteko. Horrez gain, adingabe baten kasua ere artatu da, eta horrek erakusten du zerbitzuak askotariko bizi-etapa eta beharrei erantzuteko gaitasuna duela.

ERABILTZAILEAK HIZKUNTZAREN ARABERA

Arreta jasotako emakumeen artean hizkuntza-banaketak oreka handia erakusten du:

Hizkuntza	Kopurua	%
Gaztelera	15	51,7%
Euskara	14	48,3%
Guztira	29	100,0%

Datu horiek agerian uzten dute zerbitzua bi hizkuntzetan eskaintzea ezinbestekoa dela emakume guztien beharrei erantzuteko.

KONTSULTEN EZAUGARRIAK ETA JOERAK

Ikasturte honetan jasotako datuek erakusten dute erabiltzaileen zati handi batek hitzordu bat baino gehiago behar izan dituela. Izan ere, 29 erabiltzaileetatik **18k jarraipen-saioak** izan dituzte, eta horrek adierazten du kasu askotan ez dela nahikoa orientazio puntual bat, baizik eta denboran luzatutako laguntza-prozesua behar dela.

Nabarmentzekoa da, halaber, artatutako emakumeen artean **indarkeria matxistarekin lotutako egoerek presentzia oso handia** izan dutela. Guztira 29 erabiltzaileetatik **18 kasutan** indarkeria matxistaren eragina identifikatu da, zuzenean edo zeharka. Horrek esan nahi du zerbitzua erabili duten emakumeen %60 baino gehiagok indarkeria matxistarekin lotutako ondorio emozionalak, harreman-egoerak edo errekupeazio-prozesuak izan dituztela.

Balorazio-bileran jasotakoaren arabera, aurreko ikasturteekin alderatuta aldaketa nabarmena sumatu da. Beste urte batzuetan bakardadearekin, migrazio-doluarekin edo bizitzako trantsizioekin lotutako kontsultak ugariagoak baziren ere, aurten indarkeria matxistarekin lotutako egoerek pisu handiagoa hartu dute. Kasuak konplexuagoak izan dira, inpaktu emozional handiagoarekin iritsi dira eta epe luzeko sostengua behar izan dute.

Era berean, psikologia-zerbitzura gerturatzen diren emakumeen profilean aldaketa bat antzeman da. Profesionalen arabera, **gero eta emakume migratu gehiago ari dira zerbitzura jotzen**. Lehen emakume migratuen eskaerak batez ere aholkularitza juridikora bideratzen baziren ere, gaur egun laguntza psikologikoaren beharra ere gero eta agerikoagoa da.

ZERBITZUAREN BALORAZIOA

Ikasturteko balorazioak erakusten du bidelaguntza psikologikoa Saregileren zerbitzu estrategikoenetako bat dela. Eskariaren igoerak, hitzordu kopuruak eta jarraipen-prozesuen beharrak adierazten dute emakume askorentzat erreferentziazko baliabide bihurtu dela.

Era berean, profesionalek azpimarratu dute etorkizunerako erronka garrantzitsua dela **zerbitzura gerturatzaren diren emakumeak Saregileren beste espazio eta jardueretara ere lotzea**, hala nola ahaldundutza eskolara edo elkarguneetara. Zentzu horretan, bereziki interesgarritzat jo da neska gazteei eta nerabeei zuzendutako proposamenak indartzea, baita indarkeria digitalari aurre egiteko autodefentsa feministarekin lotutako jarduerak garatzea ere.

Azkenik, uztailleko etenaldi luzea erronka gisa identifikatu da, laguntza-prozesu batzuk eten egiten direlako. Horregatik, aurrera begira komenigarritzat jo da jarraikortasuna bermatzeko aukerak aztertzea, emakumeek behar duten sostengua urte osoan zehar eskuragarri izan dezaten.

5.3. SEXU-AHOLKULARITZA

Sexu-aholkularitza emakumeen sexualitatearekin, harreman afektibo-sexualekin, identitatearekin eta ongizate erotikoarekin lotutako zalantza, kezka eta zailtasunak lantzeko eskaintzen den zerbitzu espezializatua da. Zerbitzuaren helburua da emakumeei beren sexualitatea modu askeago, kontzienteago eta asegarriago batean bizitzeko tresnak eskaintzea, entzute aktiboa, orientazioa eta bidelaguntza profesionala eskainiz.

2025-2026 ikasturtean zehar, zerbitzua **Libe Osa sexologoak** eskaini du. Aholkularitza hilabeteetan behin egin da, azarotik ekainera bitartean, Saregilen bertan, eta guztira **20 hitzordu** eskaini dira. Zerbitzua 14 urtetik gorako emakumeei eta bikoteei zuzenduta egon bada ere, ikasturte honetan egindako saio guztiak banakakoak izan dira.

ERABILTZAIEN PROFILA

Ikasturtean zehar guztira **11 emakumek** erabili dute sexu-aholkularitzako zerbitzua. Adinari dagokionez, erabiltzaile gehienak **31 eta 65 urte arteko emakumeak** izan dira, nahiz eta zerbitzuak adin-tarte zabal bati erantzun dion. Bereziki aipagarria da nerabeen presentzia ere egon dela, 0-18 urte arteko bi erabiltzaile artatu baitira. Horrek erakusten du sexualitateari

lotutako zalantzak eta beharrak bizi-ziklo osoan zehar agertzen direla eta sexu-aholkularitzak askotariko egoerei erantzuteko gaitasuna duela.

ERABILTZAILEAK HIZKUNTZAREN ARABERA

Aholkularitza honetan ere bi hizkuntzen erabilera orekatua da:

Hizkuntza	Kopurua	%
Euskara	6	54,5%
Gaztelera	5	45,5%
Guztira	11	100,0%

Datu horiek erakusten dute sexualitateari eta bizipen intimoei lotutako gaiak lantzeko garaian ere emakume askok euskaraz aritzeko aukera baliatzen dutela. Aldi berean, gaztelera arreta eskaintzea ere beharrezkoa dela agerian dago, erabiltzaile guztien beharrei erantzuteko.

LANDUTAKO GAI NAGUSIAK

Saioetan landutako gaiak sexualitatearen eta harremanen inguruko askotariko errealitateak islatu dituzte. Besteak beste, honako gai hauek jorratu dira:

- Seme-alaben sexualitatearen bidelaguntza.
- Bikote ereduen inguruko hausnarketak.
- Bikote-harremanetan distantzia edo urruntzea.
- Bikote-proiektuei buruzko zalantzak.
- Banaketa eta dolu-prozesuak.
- Desirarekin berriro konektatzeko zailtasunak.
- Desiragarritasunaren inguruko bizipenak.
- Harreman afektibo-sexualetan segurtasuna eta beldurak.
- Masturbazioarekin eta heziketa sexualarekin lotutako gaiak.

Kontsulta horiek erakusten dute sexualitatea ez dela soilik sexu-harremanekin lotutako eremua, baizik eta identitatea, harremanak, zaintzak, autoestimua, desira eta bizi-proiektuak ere barne hartzen dituen dimentsio zabala.

METODOLOGIA ETA KOORDINAZIOA

Sexu-aholkularitzan egindako lana hezitzailea eta terapeutikoa izan da aldi berean. Saioetan parte-hartzaileen bizipenak eta kezak entzun dira, egoerak ulertzeko eta hitzak jartzeko espazioa eskainiz. Horretatik abiatuta, galderak, hausnarketak eta proposamen berriak planteatu dira, emakumeek beren erabakiak hartzeko eta desioekin konektatzeko gaitasuna indartzeko.

Ikasturtearen hasieran, gainera, koordinazio-saio bat egin zen herriko eta Saregileren baitako beste profesional batzuekin, sexu-aholkularitzaren helburuak eta lan-esparruak aurkezteko. Bilera horretan emagina, gizarte-langileak, berdintasun teknikaria, Emakumeon* Etxeko langileak eta gainerako aholkularitzetako profesionalak elkartu ziren, deribazioak eta koordinazioa errazteko.

ZERBITZUAREN BALORAZIOA

Ikasturteko balorazioak erakusten du sexu-aholkularitzak espazio espezifiko eta beharrezkoa eskaintzen duela emakume askorentzat. Sexualitatea, harremanak eta desirak askotan eremu pribatu edo isildu gisa bizi diren arren, zerbitzu honek gai horiek modu profesionalean, lasai eta konfiantzaz lantzeko aukera eman du.

Era berean, zerbitzua astelehenetara lekualdatzeak eta gainerako aholkularitzekin egun berean eskaintzeak antolaketa hobetzea eta erabiltzaileentzako irisgarritasuna erraztea ahalbidetu du. Horri esker, emakumeek espazio lasaia eta egokia izan dute beren bizipenak partekatzeko eta laguntza jasotzeko.

Azken batean, sexu-aholkularitzak Saregileren arreta integralaren osagarri garrantzitsua izaten jarraitzen du, emakumeen ongizate emozionala, harreman osasuntsuak eta sexualitate aske eta kontzientea sustatzeko tresna baliotsua eskainiz.

5.4. INDARKERIA MATXISTA ARRETA ETA BIDERAKETA

Indarkeria matxistaren arloko arreta eta bidelaguntza Saregileren zerbitzu estrategikoetako bat da. Zerbitzu honen helburua da indarkeria matxista egoerak bizi dituzten emakumeei lehen arreta, orientazioa, informazioa eta bidelaguntza eskaintzea, betiere emakumeen segurtasuna, autonomia eta erabakiak errespetatuz. Arreta ikuspegi feministatik eta intersektzionaletik eskaintzen da, emakume bakoitzaren egoera, erritmoak eta beharrak kontuan hartuta.

Arreta eta lehen bideraketa Saregileko koordinatzaileek egiten dute, eta beharrezkoa denean udaleko zein bestelako baliabide espezializatuekin koordinazioa aktibatzen da.

KASUEN DATU OROKORRAK

2025-2026 ikasturtean zehar guztira **16 indarkeria matxista kasu** erregistratu dira. Kasu horiek hainbat bidetatik iritsi dira Saregilera, eta horrek erakusten du herrian indarkeria matxistaren aurrean sortutako detekzio eta deribazio sareak funtzionatzen duela.

Sarbidea	Kasu kopurua
Saregile	5
Gizarte Zerbitzuak	4
Ikastola	2
Mugimendu feminista	2
Udaltzaingoa	2
Beste/zehaztu gabe	1

Datu horiek erakusten dute Saregile bera dela kasuak identifikatzeko eta harrera egiteko bide nagusietako bat, baina baita herriko beste eragile batzuek ere —bereziki Gizarte Zerbitzuek, hezkuntza komunitateak, mugimendu feministak eta Udaltzaingoa— paper garrantzitsua dutela detekzioan eta deribazioan.

ADINA ETA HIZKUNTZA

Artatutako emakumeen adinei dagokienez, profil nagusia **31 eta 50 urte arteko emakumeena** izan da. Hala ere, kasuak adin-tarte guztietan identifikatu dira, 19 eta 65 urtetik gorako emakumeetaraino.

Adin tartea	Kasu kopurua
19-30	3
31-40	6
41-50	4
51-65	3
65+	1

Hizkuntzari dagokionez, arreta nahiko orekatua izan da:

Hizkuntza	Kasu kopurua
Euskara	9
Gaztelera	7

Datu horiek erakusten dute bi hizkuntzetan arreta espezializatua eskaintzea beharrezkoa dela, eta euskarazko arreta ere funtsezko baliabidea dela emakume askorentzat.

INDARKERIAREN EZAUGARRIAK

Erregistratutako kasuek erakusten dute indarkeria matxistak forma askotarikoak hartzen dituela eta, kasu gehienetan, indarkeria mota bat baino gehiago batera agertzen direla.

Indarkeria mota	Kasu kopurua
Psikologikoa	13
Ekonomikoa	7
Fisikoa	6
Sexu-indarkeria	6
Soziala	3
Bikarioa	3
Jazarpena	2
Instituzionala	2

Datuetan argi ikusten da **indarkeria psikologikoa** dela gehien agertzen den indarkeria mota. Izan ere, erregistratutako 16 kasuetatik 13tan identifikatu da. Horrek berresten du indarkeria matxistaren adierazpen ohikoenetako bat dela, eta askotan beste indarkeria mota batzuekin batera agertzen dela.

Halaber, sexu-indarkeria, indarkeria fisikoa eta indarkeria ekonomikoa ere presentzia handiko errealitateak izan dira ikasturte honetan. Kasu batzuek, gainera, aldi berean hainbat indarkeria-adierazpen metatzen zituzten, emakumeen bizitzetan eragin konplexu eta sakonak sortuz.

ERASOTZAILEAREKIKO HARREMANA

Erregistratutako kasu gehienetan erasotzailea emakumearen bikotea edo bikote ohia izan da.

Harremana	Kasu kopurua
Bikote ohia	8
Bikotea	6
Beste batzuk (herrikidea, ikaslea, ezezaguna)	3

Datu horiek erakusten dute indarkeria matxista nagusiki harreman afektibo edo bikote-harremanen testuinguruan gertatzen dela, nahiz eta bestelako eremuetan ere agertu.

BABES-NEURRIAK ETA BIDE JUDIZIALA

Erregistratutako kasuen artean hainbatetan bide judiziala aktibatu da, eta zenbait kasutan urruntze-aginduak ere ezarri dira. Hala ere, kasu guztiek ez dute salaketa edo prozedura judizialik izan, eta horrek gogorarazten du indarkeria matxistaren aurrean emakume bakoitzak bere erritmoak eta erabakiak dituela.

Saregileren lana ez da salaketa-prozesuetara mugatzen; emakumeei informazioa, laguntza eta bidelaguntza eskaintzea da helburua, haiek erabaki ahal izan dezaten zein urrats eman nahi dituzten.

BALORAZIO OROKORRA

Ikasturte honetako datuek erakusten dute indarkeria matxistaren arloko arreta Saregileren jardunaren funtsezko eremua dela. Gainera, bidelaguntza psikologikoko zerbitzuaren balorazioan ere nabarmendu den bezala, aurten artatutako emakume asko indarkeria matxistaren inpaktu handiagoarekin iritsi dira, eta kasuek epe luzeko sostengua eta koordinazio handiagoa eskatu dute.

Bestalde, kasuen jatorri-aniztasunak eta deribazio-bideen ugaritasunak erakusten dute herrian badagoela detekzio-sare bat, baina baita emakume askok Saregile erreferentziatzeko espazio seguru gisa identifikatzen dutela ere. Zentzu horretan, emakumeen harrera, entzutea, orientazioa eta baliabideetara bideratzea ezinbesteko tresnak izan dira indarkeria matxistaren aurrean erantzun komunitario eta koordinatua eskaintzeko.

5.5. AHOALKULARITZEN ERABILTZAILIEN PROFIL OROKORRA

Aholkularitza-zerbitzuak erabili dituzten emakumeen profila askotarikoa izan bada ere, erabiltzaile gehienak 31 eta 50 urte arteko emakumeak izan dira. Zerbitzuak, hala ere, adin guztietako emakumeengana iritsi dira, nerabeetatik hasi eta 65 urtetik gorako emakumeetaraino.

Hizkuntzari dagokionez, euskararen eta gazteleraren erabilera orekatua izan da zerbitzu guztietan, eta horrek agerian uzten du bi hizkuntzetan arreta espezializatua eskaintzearen garrantzia.

Aholkularitzetara ekarri dituzten gaien artean banaketa-prozesuak, zaintzarekin lotutako egoerak, lan-arazoak, harreman afektiboak, sexualitatea, ongizate emozionala eta indarkeria matxista nabarmendu dira. Bereziki esanguratsua izan da indarkeria matxistarekin lotutako kasuen presentzia, bai arreta espezifikokoan bai gainerako aholkularitzetan.

Bestalde, ikasturte honetan aholkularitzen arteko koordinazioa eta deribazioak areagotu egin dira. Izan ere, erabiltzaile askok aholkularitza bat baino gehiago erabili dituzte, beren beharrek ikuspegi integralagoa eskatzen zutelako. Horrek erakusten du emakumeen egoerak askotan ez direla arlo bakar batera mugatzen, eta Saregileren aholkularitza-sistemak erantzun koordinatua emateko gaitasuna duela.

Oro har, datuek erakusten dute Saregile erreferentziazko arreta-, orientazio- eta bidelaguntza-gune bihurtu dela herriko emakumeentzat, gero eta behar konplexuago eta anitzagoei erantzunez.

6. AGENDA

2025-2026 ikasturtean Saregilek 9 agenda-ekintza antolatu ditu, eta gutxienez 307 pertsonaren parte-hartzea erregistratu da. Parte-hartze handiena kultur eta hausnarketa feministako proposamenek izan dute, bereziki *Esne-berriketan* liburu-aurkezpen musikatua, Hezkidetza Diagnostikoaren aurkezpena eta ikasturte amaierako ekintza. Programazioak literatura, memoria feminista, LGTBQ+ ikusgarritasuna, indarkeria matxistaren aurkako lanketa eta komunitate-sarea indartzeko espazioak uztartu ditu.

Ekintza	Bidelaguna / Hizlaria	Data	Parte-hartzaileak
Hezkidetza diagnostikoaren aurkezpena	Eihera Kooperatiba, Orioko Udala	2025/09/19	50
Xerka erakusketa eta solasaldia	Xerka	2025/10/23	19
Esne-berriketan liburu aurkezpen musikatua	Uxue Alberdi, Amorante, Miren Artetxe, Maider Arregi	2025/12/12	83
Zahartzeko Manerak Euskal Literaturan	Iratxe Retolaza, Arantxa Urretabizkaia, Yolanda Arieta, Mari Luz Esteban	2026/02/24	36
Bigarren eskuko azoka	Emakume Mahaia	2026/03/06-07	4 saltzaile (bisitarien daturik ez)
Jone, batzuetan (film emanaldia)	—	2026/03/12	27
Indarkeria matxista eta erreparazio prozesuak hitzaldia	Sheila Melcon (Sortzen)	2026/03/26	23
Zinegoak	Zinegoak	2026/05/28	21
Ikasturte amaierako ekintza: sendabelarren ibilaldia eta merienda	Aiora Urbieta + DJ Siwanaba	2026/06/11	48 (18 + 30)

7. ELKARGUNEAK ETA ESPAZIOAREN ERABILERA

2025-2026 ikasturtean Saregilen hainbat elkargune egon dira emakumeen arteko harremanak, sareak eta elkarri laguntzeko espazioak sustatzeko. Ikasturte osoan zehar jarraikortasun handiena izan dutenak Munduko Emakumeen Topagunea, Irakurle Taldea, eta Amatasunak Partekatze Espazioa izan dira.

Elkarguneek funtzio osagarri garrantzitsua bete dute aholkularitzen eta ahalduztze eskolen aldean. Batetik, parte-hartzaileei lotura komunitarioak eraikitze aukera eman diete; bestetik, emakume askorentzat Saregilera hurbiltzeko lehen atea izan dira. Bereziki nabarmendu behar da elkargune horiek adin, jatorri eta bizipen desberdinetako emakumeak biltzeko balio izan dutela, bakardade egoerei aurre egiten lagunduz eta laguntza-sare informalak indartuz.

Ikasturtean zehar ikusi da elkarguneek jarraipen handia dutela parte-hartzaileen artean, batez ere Irakurle Taldean eta Munduko Emakumeen Topagunean. Era berean, Amatasunen Espazioak eta Neska* Gazteak Feminismorantz taldeak bizi-ziklo jakin batzuetako behar espezifikoak erantzuteko balio izan dute, emakume gazteen eta amen arteko topaketa, hausnarketa eta ahalduztze kolektiborako guneak eskainiz.

Oro har, elkarguneek Saregileren funtzio komunitarioa indartu dute, ezagutza-trukerako, babeserako eta ahalduztze kolektiborako espazio seguruak sortuz, eta emakumeen etxearen eguneroko dinamikan funtsezko tresna bihurtu dira. Gainera, ikasturte honetan ikusi da elkarguneak eta gainerako zerbitzuak (aholkularitzak eta ahalduztze eskolak) gero eta lotuago daudela, erabiltzaile askok hainbat espaziotan parte hartzen baitute, Saregilerekiko lotura sendotuz.

Horrez gain, ikasturte honetan berretsi da Saregile ez dela soilik udaleko zerbitzuak eskaintzen dituen ekipamendua, baizik eta herritarren auto-antolakuntza eta autogestioa sustatzeko espazio komunitarioa ere badela. Urtean zehar hainbat herri-ekimenek Saregile hartu dute topagune eta antolaketa-gune gisa, hala nola Palestinaren aldeko ekimenek, bigarren eskuko azokaren antolakuntzak jasangarritasunaren ikuspegitik, jailetako Kuir Festaren prestaketek, mugimendu feministaren eta Orioko Pakak taldearen bilerek edota Txurmuski elkartearen formakuntza-

saioek. Erabilera horiek erakusten dute emakumeen etxeak herriko ehun soziala indartzeko eta herritarren ekimenak sustatzeko duen gaitasuna, komunitatea eraikitze eta parte-hartzea bultzatzeko erreferentziazko espazio bihurtuz.

8. ONDORIOAK ETA ERRONKAK

Saregile, pixkanaka, herriko erreferentziazko espazio gisa sendotzen ari da. Hiru ikasturteko ibilbidearen ondoren, ikasturte honetako datuek erakusten dute emakumeen etxea gero eta emakume gehiagorengana iristen ari dela. Erabiltzaile berri ugari hurbildu dira lehen aldiz Saregilera, bai ahalduntze eskoletara, bai aholkularitzetara, bai agenda irekiko ekintzetara ere. Aldi berean, Saregile gero eta gehiago ari da sendotzen **espazio seguru, hurbil eta konfiantzazko gisa, bereziki emakumeentzat, baina baita LGTBQ+ pertsonentzat eta emakume migratuentzat** ere. Era berean, ikasturte honetan garatutako **gizentasunen taldeak** erakutsi du une eta prozesu jakin batzuetan gizonek ere badutela tokia Saregilen, berdintasunaren eta feminismoaren ikuspegitik hausnarketa eta eraldaketa sustatzeko.

Hala ere, Saregile erreferentziazko gune bihurtzen ari den arren, herritar askorengana oraindik ez da iritsi. Horregatik, etorkizuneko erronketako bat izango da **herriratze-lana eta pedagogia egiten jarraitzea, emakumeen etxe bat zer den**, zer helburu dituen eta udal ekipamendu honetan zer eskaintzen den herritarrei gerturatzen jarraitzeko.

Indarkeria matxistaren aurrean arreta integralaren garrantzia are ageriago geratu da. Ikasturte honetan nabarmen igo dira indarkeria matxistarekin lotutako kasuak, eta artatutako egoerek konplexutasun eta inpaktu handiagoa izan dute. Testuinguru horretan, funtsezkoa izan da udaleko gizarte zerbitzuekin, udaltzaingoarekin eta gainerako profesionalekin mantendutako koordinazio estua, emakumeen arreta-ibilbidea modu egokian antolatzeko. Aldi berean, argi geratu da arreta hori ezin dela esku-hartze puntual batera mugatu: aholkularitza juridikoa eta psikologikoa ezinbesteko tresnak dira emakumeen beharrei erantzun egokia emateko, kasuen jarraipena egiteko eta behar diren deribazioak koordinatzeko. Horrez gain, emakume askok aholkularitza bat baino gehiago erabili dute, eta hainbat kasutan aholkularitzetako arreta Saregileko ahalduntze eskolekin edo elkarguneekin osatu da. Horrek berresten du banakako arreta eta komunitate-prozesuak uztartzen dituen eredua dela emakumeen ahalduntzea eta errekonferentzia indartzeko biderik egokiena.

Hori horrela, ezinbestekoa da **aholkularitzetara heltzen diren emakumeekin ibilbide bat lantzea**, banakako arreta abiapuntu izanik, ahalduntze-prozesu kolektiboetara, elkarguneetara

eta Saregileren komunitate-bizitzara bideratzeko; eta baita ere, gogoeta feministetara gerturatzeko.

Aholkularitzen arteko koordinazioa ere nabarmen indartu da. Aurten aurreko ikasturteetan baino deribazio gehiago egin dira aholkularitzen artean, eta gero eta emakume gehiagok baliabide bat baino gehiago erabili dituzte beren egoerari erantzuteko. Horrek erakusten du zerbitzuak ez direla modu isolatuan ulertu behar, elkarren osagarri den arreta-sare baten parte baizik. Diziplina anitzeko ikuspegi horri esker, emakume bakoitzaren beharretara hobeto egokitutako erantzunak eskaintzea lortu da.

Emakume migratuen presentzia gutxinaka handitzen ari da, eta horrek erronka berriak planteatzen ditu kulturartekotasunari, hizkuntzaren erabilerari edo arrazakeriaren aurkako lanketari lotuta. Ikasturte honetan aholkularitzetara gero eta emakume migratu gehiago hurbildu dira, eta horrek adierazten du Saregile beraientzat ere hurbileko eta konfiantzazko baliabide bihurtzen ari dela. Hala ere, joera hori ez da neurri berean islatu ahalduntze eskoletan eta gainerako espazio kolektiboetan; bertan emakume euskaldunak dira oraindik gehiengoa. Hori horrela, egoera horretan programazioaren ia gehiena euskaraz eskaintzeak eragin handia du. Euskarazko arreta espezializatua Saregileren balio nagusietako bat da eta emakumeen etxeari nortasun propioa ematen dio; aldi berean, estrategikotzat jotzen da zenbait tailer eta jarduera gaztelaniaz ere eskaintzea, emakume migratuak eta euskaraz moldatzen ez diren emakumeak prozesu kolektiboetara gerturatzeko. Horrela, emakume guztien arteko harremanak eta sareak indartzen dira, komunitatea eraikitzen da eta, aldi berean, emakume migratuak euskal kulturara eta euskarara modu natural eta hurbilean gerturatzeko aukera ere sortzen da.

Azkenik, ikasturte honek berretsi du **Saregile Orioko herriarentzat ekipamendu estrategikoa** dela. Emakumeen ahalduntzea eta indarkeria matxistaren aurkako arreta izaten jarraitzen dute bere ardatz nagusiak, baina urte hauetan egindako ibilbideak erakusten du bestelako prozesu komunitarioak ere bertatik artikulatzeko gaitasuna duela. Harrera eta kulturartekotasun politikak, zaintza komunitarioaren garapena, **zaintzaileen eskola, guraso eskola**, edota herritarren formazio eta sentsibilizaziorako espazio berriak modu naturalean txerta daitezke Saregileren baitan.

Era berean, Saregilek elkar-topatzeko gune izaten jarraitu behar du: **emakumeen arteko harremanak sendotzeko, sareak ehuntzeko, espazio informalak sortzeko eta elkartasun-sareak indartzeko** tokia. Izan ere, emakumeen etxearen balio nagusietako bat ez da soilik jarduerak eskaintzea, baizik eta emakumeen arteko loturak eta komunitatea eraikitze baldintzak sortzea. Ildo horretan, etorkizunerako erronka garrantzitsuenetako bat **Eskola Feminista** garatzea da: herritar guztiei zuzendutako prestakuntza, hausnarketa eta eztabaidarako gune iraunkorra, feminismoa herriko eraldaketa sozialaren tresna gisa indartzeko eta emakumeen etxea ezagutza, parte-hartzea eta komunitatea eraikitze erreferentziazko espazio gisa sendotzen jarraitzeko.

